

Santiotako programako

# AZALAREN LEHIAKETA

Lanak aurkezteko epea: maiatzaren 16tik ekainaren 8ra



## LEHIAKETAREN OINARRIAK

- Lehiaketan parte hartu ahal izateko, herrikoa izan behar da, eta 16 urtetik gorakoa.
- Lanek erabat originalak izan beharko dute. Norbaitek originala ez den lan bat aurkeztuko balu, ezin izango da lehiaketaren hurrengo edizioetan aurkeztu.
- Azalaren formatua 21x21 cm-koa izango da, eta edozein teknika erabil daiteke.
- Aurkeztutako azalak honako testua eraman beharko du: "Santio Jaiak - Villabona 2023"
- Lanak Udaleko herritarren arreta bulegoan aurkeztu daitezke, 08:00-14:00 ordutegian.
- Lanarekin batera, sobre itxi bat aurkeztu beharko da, eta bertan parte-hartzailearen izen-abizenak eta telefonoa jarri behar dira.

- Lehiakide bakoitzak nahi adina lan aurkeztu ditzake, baina, lan bakoitzarekin batera, datuak dauzkan sobre itxi bana aurkeztu beharko da.
- Lehiaketaren epai-mahaia **Santio Jai Batzordea** da.

## SARIAK

- Lan irabazleak **400 EUROKO SARIA** izango du.
- Aurten bigarren saria ere egongo da: **TABLET BAT**



AMASA-VILLABONA  
Villabonako Udala

Kultura  
VILLABONA